

PADELA

2014ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Padel Federazioarekin lankidetzan, 2014ko maiatzaren 24ean, Gasteizko Mendizorrotzako kirolgunean. Hauxe duzue jokoaren araudia:

1. JOKO SISTEMA

Lurralde Historiko bakoitzak nesken bikote bat eta mutilen beste bat izango ditu ordezkari, baita kapitain bat ere.

Bi taldek hartuko dute parte jokoan, bata neskena eta mutilena bestea, bakoitzean hiru bikote izango direlarik, denek denek kontra jokatuz.

Partidetan 6 jokatuko 3 setetan onena baloratuko da. 6 jokoetan berdinketa eman ezker, tie-break bat jokatuko da bakoitzean 7 puntu lortu harte.

2. PARTAIDETZA

2000 eta 2001ean jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte, infantil kategoria alegia.

Taldeak honela geratuko dira sailkatuta, zozketa egiteko irizpideak ondorengoak izan dira: Talde batean aurreko urteko txapelduna egongo da eta bestean txapeldunordea, finalik jokatu ez zuen lurraldeko lehenak zozketa bidez sartuko da taldeetan, eta beste jokalaria guztiak talde berean bi lurralde berdin ekidituz sartuko dira.

▪ MUTILEN TALDEA

1. BIZKAIA
2. ARABA
3. GIPUZKOA

▪ NESKEN TALDEA

1. BIZKAIA
2. ARABA
3. GIPUZKOA

3. SARIAK:

Sailkapenaren arabera bikoteak kopa bana izango dute kategoria bakoitzeko.

4. BESTE BATZUK

Antolatzaileek jatekoa eta ura emango diete parte-hartzaile guztiei.

Behar dutenei autobus-zerbitzua eskainiko zaie (ordutegiak eta irteera- eta helmuga-lekuak jakinarazi egingo zaizkizue).

5. ARBITRAJEA

Euskadiko Padel federazioak jokoen epaile arbitroa izendatuko du.

6. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.



- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Euskadiko Padel federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.